



2002/12/11ko prentsa-oharra

IKERKETAKO ETA GARAPEN TEKNOLOGIKOKO (I+G) JARDUEREI BURUZKO ESTATISTIKA (I+G) 2001. urtea

EUSKAL AE-KO I+G-KO GASTUA %4,2 HANDITU DA 2001ean

Gastu hori BPGrekiko (%1,49) Espainiako batez bestekoaren gainetik dago (2000. urtean %0,94), eta Europar Batasuna-15ekoaren azpitik (%1,94).


2001. urtean, Euskal Autonomia Erkidegoan, guztira, 619 milioi euro inbertitu ziren ikerketa zientifiko eta garapen teknologikoko (I+Gko) jardueretan, aurreko urtean baino %4,2 gehiago, Eustatek landu dituen datuen arabera. Kopuru horrek BPGaren %1,49 hartzen du, eta, beraz, estatuko batez bestekoaren gainetik dago (2000. urtean %0,94), baina Europar Batasuneko batez bestekoaren azpitik (%1,94). Hala ere, 2000n baino bi ehunen gutxiago dira, aurten BPGa gehiago hazi baita (%5,4) I+G gastua baino.

Egiaztatzen da erlazio positiboa dagoela biztanleko BPGaren eta I+Gra bideratutako BPGaren ehunekoaren artean. Herrialde aberatsenak egiten dute I+Gko inbertsiorik handiena, hau da, euren BPGaren %2,5 gainditzen dutenak, eta Suedia, Japonia, Finlandia eta AEB dira. Bitarteko ahalegina, BPGaren %1,5en eta %2,5en artekoa, egiten dutenen artean, Alemania, Frantzia, Danimarka, Erresuma Batua, Norvegia, Austria, Islandia eta Kanada daude. Inbertsio baxuak, azkenik, Italia, Polonia, Hungaria, Espainia eta Portugalen izaten dira.

Autonomia-erkidegoka, Euskal AEk bigarren tokian jarraitzen du I+Gko ahaleginaren rankingean, eta Madrilgo Erkidegoa baino ez dago aurretik (2000. urtean %1,67ko gastua BPGaren aldean), I+Gan diharduten zentro publiko asko han biltzen direlako. Horiek horrela, ezin autonomia-erkidegok ez du gainditzen Europar Batasuna-15eko batez bestekoa.

Egikaritze-sektoreei dagokienez, enpresek I+Gko gastuaren %80 kontsumitu zuten; %17 unibertsitate-ikerketara bideratu zen, eta gainerako %3a Administrazioaren mendeko zenbait organismo publikoetara. Arlo horretan ere diferentzial handia dago Espainiar Estatuko emaitzen aldean, non 2000. urtean, enpresek I+Gko gastuaren %54 besterik ez baitute egikaritu.

I+Gn GASTUA EGIKARITZE-SEKTOREAREN ARABERA (milioi €)



Iturria: EUSTAT

Gastu handiena burutzen duen eta langile-kopuru handiena erabiltzen duen zientzia-diziplina ingeniariaritzaren teknologia da, diziplina horretara bideratzen baitira baliabideen %79 eta han lan egiten dute I+Gn dedikazio osoko baliokidetzan (DOB) diharduten langileen %75ek.

Industria-enpresei dagokienez, aipatzekoak dira garrantzi handieneko produktu ikertu gisa makineria eta tresneria mekanikoa, eta aireontzi eta espazio-ontzien eraikuntza. Bi sektoreen artean, enpresek I+Gko bideratzen dituzten gastu arrunt guztien %27 (2000. urtearekiko %-2) kontsumitzen dute.

Zerbitzu-enpresen aldetik, telekomunikazioak, softwarea eta I+Gko zerbitzuak dira baliabide gehien jasotzen duten produktuak, eta guztien artean I+Gko bideratutako gastu arruntaren %17ra (2000. urtearekiko %+1) iristen dira.

Finantzaketaren ikuspegitik, finantzaketa pribatuak, enpresen bidez, 411 milioi euro bideratu zituen ikerketara, guztizkoaren %66; finantzaketa publikoak %27 iritsi zuen, eta funtsen %7 atzerrian atzeman ziren. Euskal AE finantzaketa pribatu handieneko herrialdeen artean kokatzen da, AEB, Suitza eta Suediaren mailan.

Euskal AEn I+Gko jardueretan diharduen guztizko langile-kopurua 10.621 lagunera iristen da, biztanleria landunaren milako 12,28; eta kopuru horretatik, 5.809 ikertzaileak dira, milako 6,71.

I+G-KO ADIERAZLEAK

	Euskal AE		ESPAINIA	EUROPAR BATAS.-15
	2000	2001	2000	2000
I+G-KO GASTUAK (%)				
BPGaren aldean	1,51	1,49	0,94	1,93
I+G-KO GASTUAK (%)				
FINANTZAKETAREN				
ARABERA	69,0	66,1	49,7	55,5
Enpresak	27,4	26,5	43,4	35,0
Administrazioa	0,4	0,1	2,0	2,2
Bestelako iturriak	3,2	7,3	4,9	7,3
Atzerria				
I+G-N DIHARDUTEN				
LANGILEAK, DOB-EN	9.091	10.621	120.618	1.716.637
(*)	5.494	5.809	76.670	919.318
Langileak guztira				
Ikertzaileak				

(*) DOB: Dedikazio Osoko Baliokidetzaren

Iturria: Euskal AE: EUSTAT- Espainia: INE- Europar Batasuna: EUROSTAT

Euskal AEn egindako ikerketaren ondorio eta adierazle gisa, 2001ean Europako bidetik, zein estatuko bidetik argitaratutako patenteak 202 dira, eta horietan artikuluko metalikoak eta makineria nabarmentzen dira, bien artean 94 patente egin baitituzte. Sortutako baliagarritasun-modeloak 168 dira eta horietan artikuluko metalikoak, enpresen eta makineria nabarmentzen dira.

Argibide gehiagorako, deitu hona:

 Eustat	Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística
	Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz
	Tel:+34-945-01 75 00 Fax:+34-945-01 75 01 E-mail: eustat@eustat.es
	Harremanetarako pertsona: Susana Rabuñal Mol
	Tel:+34-945-01 75 48 Fax:+34-945-01 75 01

